

## Umeentzako nobedadeak



### JAINKO-JAINKOSEN LASTERKETA

**MIKEL VALVERDE**

● **Elkar.** Zoe eta bere txirrindulari taldeko guztiak etsita eta burumakur daude, ez baitituzte onartzen lasterketa bakar batean ere, eta, horren ondorioz, ezin dituzte lortu lehiatzen jarraitzeko beharrezkoak dituzten puntuak. Esperantza galtzear daudela, gonbidapen bat iritsi zaie Atenastik: Zeusen mirakulua! Zoek Jainko-Jainkosen lasterketa mitikoan parte hartuko du. Ehun urte dira Antzinako Greziako jainko-jainkosen eta mitoen omenezko proba hori egiten ez dela. Zergatik ote? Zoez gain, Vanessa Stacy Sausalito, Fabio Gallopinni, Sato Tatami eta Amrita Dickinsonek hartuko dute parte lasterketan. Tropel txiki horretako kideek labirintoei, minotauroei eta sirena-kantu arriskutsuei egin beharko diete aurre.



### INOREN MUNDUAN

**ASEL LUZARRAGA**

● **Elkar.** Baso eta ibai, mendi eta mortu, itsaso eta hiriz osaturiko lurralde ezezagun eta denbora zehaztugabe batera garamatza Asel Luzarraga idazle bilbotarrak abenturaz eta fantasiaz, borrokaz eta errebeldiaz beteriko nobela honetan. Hasiera baten nausientzako liburu zena, gazte literaturara eraldatu du. Aize eta Hodei, egoera zailen topo egingo duten bi emakume gazte dira; andre gertarien leinutik erbesteratua bata, sorginen askazikoa izateagatik jazarria bestea, era guztietako etsai eta arerioei egin beharko diete aurre, bidean topatuko duten Leixuri adiskidearekin batera. Hiru neska dira protagonistak, beraz, Luzarragak hala nahi zuelako.



### GOLIAT ETA IZARRAK

**PATXI ZUBIZARRETA**

● **Alberdania.** Maren eta Aiert Txindokira joan dira Joanes artzainarekin. Kasik igerian sentituko dira han. Kasik hegan. Elur jausi beldurgarri baten berri izango dute han. Eta pintore itsuarena. Eta izarrak edaten dituen Goliat txakurrarena... Aralar mendilerro handia, Aralar mendikate zabala ezin da liburu batean sartu. Baina ipuinotan barneratzen bazara, mendi bat baino gehiago mundu bat deskubrituko duzu: itsaso zaharrak eta glaziarrak, leizezuloak eta amildegiak, pertsonaia harrigarriak eta animalia interesgarriak. Aralar zarela sentituko duzu, Aralar garela. Ausartu, ahoskatu hitz magikoak, eta sartu... Garalar-maralar! Zubizarreta da liburuaren egilea, eta Jokin Mitxelena da irudigile.